

BILGUMA BEREZIAREN EGINTZA.



Uri ontako Euskal-itz jostaldien Bilguma dator gaur kontu ematera, bear dan errespetoarekin, leku an onratzen duten entzule guztiai, zér nolakoa dan, aurtan, izkribatzalle eta musikalarrien indar neurtzeetan, Batzar epalle bereziak erabaki duten sari-emaldia.

Itz neurtu edo larrietan, jostiruditar saiork onenari agindutako *sariya*, eraman du *Donostiar-bat-ek*, zeñek ez duen bere izena agertzea nai; bere lanarena izanik *Onezaro gaba*.

Edozein gai ta neurritan izkribatutako biursakintzik onenarenzat eskeñitako *sariya* irabazi du Ou José Ansuarenak, *Lore bat* izentzat duenagatik. *Aldeera* On José Zapirain-ek, *Genikako Arbolari* donkitu dionagatik, eta *Aipamen onragarriak* Rosario Artola, Pedro María Otaño, Toribio Elola ta José Marino Arrieta jáunak.

Euskal-lurrean diran eleizacho famatuetatik edozein baten gañean izkribu kondairazko edo aditutakorik onenari agindutako *makilla*, irabazi du On Migel Antonio Iñarrak, *Ujué* izendatzen danagatik; ta *aldeera* On Rafael Murga eta Mugartegik, *Gaztelugach-en* gañean aurkeztu duenaren egillea izanik.

Jostirudiko sariya irabazi zuen joan dan urteko Euskal-festant Bruno Olazabal jaunák.

Uri ontako *Union Artesana* elkarteak eskeñitako *sariya* eraman du *Pulpubak*, au da onla izendatzen dan bakarrizketak; bere egillea Galerna. *Aldeera* irabazi du On José Artola-k egin-tako *Praiskuk*.

Ill onen 11^{an}, goizeko amaiketan, izandu zan, lenez aurretik adierazi zan bezela, 15 urtetik berako neska-mutillen euskarazko esamiña: beñere baño geiago etorri ziran, irakurri ta izkribaturik guztiz ondo gure Euskera zar maitagarriyan, egiñik ederkiena Anjel Gadea, Luis Leclerq Uranga eta Manuel Gabi-londo-k.

Kolon-en onran egiñak aurkeztu dira bi lan, emanik bakoitzari *Aipamen onragarri* bat. On Léonard Dalbarade da bataren egillea, ta bestearena On Franzisko Lopez Alén.

Len esantako *komeriya* eta bi *bakarrizketak* moldizkiratu ta argitaratuak izango dira, laister, Batzarrearen kontura.

Musikalarien indar neurtzan, On Juan Guimon ta On Romualdo Gochikoa izan dira *sartuak* «Aurrerá» ta «Tolosako Godartaria» izentzat dituzten moldaerak gatik; eta *aldeera* eman zaio On Kleto Zabala jaunari «Quien no ama la música no ama lo divino» azalkaitzat duenaren egillea dalako.

Gañerako sariyak jabegabetuak gelditu dira. Au erabaki da, lan guztiak kontuz esamiñatu ta ondoren. Esan diranak dauz-kate doai estimagarriak, aditzera emanik, argiro, urtetik urtera aurreratzen guazela gure Euskal-bidean.

Bukatu baño len, Batzarreak donkitzen dio oroitz bat bere lagun maite On José Irastorza, aurten ill danari.

Gu ill ta gero ere ¡*Bizi bedi Euskera!*

Donostian, 1892^{ko} Abenduaren 17^{an}.

Bilguma bereziaren izenean: ALFREDO LAFFITTE, *Dianagusia*.= ANTONIO ARZÁC, *Goarpelaria*.

